

Autozine bat, non karabana bat jarriko dugu, janari osasuntsua saltzeko.
Gure helburua da, koronabirus garai honetan, ekintza desberdin bat
sortzea.

BALIO PROPOSAMENAK

Herriaren beharrei begiratuta, konturatu gara ez dagoela gazteentzako lekurik Zumarraga-Urretxu inguruan. Gure helburu nagusia, gazteentzako leku entretenigarri bat sortzea da, beraz, gure proiektuarekin lortu nahi duguna da, 16 eta 25 urte bitarteko gazteak, egiteko zerbait edukitzea.

Entretenitzeko filmak jarriko ditugu ostiral, larunbat eta igandeetan. Filma, bai zure autoan, bai bertan alokatuko ditugun autoetan ikusi ahal izango da. Beste autozinetatik bereizten gaituena, filma ikusteaz gain, gure janariaz gozatu dezakezuela eta gure langileak, filmaren gaiaren arabera janzkera ezberdinak jantziko dituztela da.

Lehen aipatu dugun bezala, filma ikusten duzun heinean, afaltzeko edo jateko aukera izango duzu. Gure janaria banatu ahal izateko, karabana moduko bat jarriko dugu, non janaria jasotzeaz aparte, mahai batzuk eskura izango ditu bezeroak bertan esertzeko. Eskainiko dugun janaria azkarra izateaz gain, janari osasungarria izango da, hau da, produktu lokalak izango dira. Kasu berezietan, filmaren gaiaren arabeko janaria eskainiko dugu. Adibidez; Mexikon testuinguratutako filma bat bada, egureno jartzen dugun janariaz gain, Mexikoko janaria ere aurkituko duzue gure karabanan.



Gure xedea, filma bezero gehienek gustukoa izatea izango da. Horregatik, bezeroak, autozinean parte hartzeko, postontzi bat jarriko dugu edozeinek filma inguruan eskaera ezberdinak egiteko.



Erabiliko dugun eremua, zelai bat izango da non dena aire zabalean egongo da karabanaren ingurua izan ezik; bezeroak janaria eskuratzen duten bitartean estalita egoteko.



Bertan alokatuko ditugun autoak 10 izango dira. Gainerakoak, bezero batzuekin batera sartuko direnak, 10 kotxe izango dira. Honetaz aparte, gaur egungo egoerarengatik, kotxe bakoitzeko gehienez 4 pertsona sartu ahal izango dira.



